

FAMILIA ETA HEZITZAILEA: EZINBESTEKO ELKARLANA

Susana Aparicio Rebé
Pedagogoa, Gizarte Hezitzailea



Apatxin 2009/2010



HELBURUAK

- Haur, hezitzaile eta familiaren arteko harreman hobe eta eraginkor baterako baliabideak eskaintzea.

EDUKIAK

1. FAMILIA

1. ZER DA FAMILIA?
2. GAUR EGUNGO FAMILIEN EZAUGARRIAK
3. HAUR-HEZKUNTZAKO FAMILIEN EZAUGARRI BATZUK
4. HEZIKETA ESTILOAK

2. HAUR ESKOLA:

1. Zer da Haur eskola?
2. EGOKITZAPEN ALDIRAKO HELBURUAK:
3. EGOKITZAPENA HAURAREN GARAPEN UNEAREN ARABERA

3. KOMUNIKAZIOA:

1. KOMUNIKAZIOA
2. GIZA KOMUNIKAZIOAREN AXIOMAK
3. KOMUNIKAZIOAREN ELEMENTUAK
4. KOMUNIKAZIOA ERREZTEN DUTE...
5. KOMUNIKAZIORAKO TRABAK
6. KOMUNIKAZIO ERAGINKOR BATERAKO



FAMILIA

ZER DA FAMILIA?

■ Familiaren definizioa:

- Bizitzako egitasmo iraunkorra elkarrekin batean duten pertsonen taldea da.
- Bertan partaide izatearen sentimendu sendoak sortzen dira;
- partaideen artean konpromezu pertsonala ezarriz eta elkarrekikotasuna, dependentzia, intimitate eta elkartasun harreman biziak eraikitzen dira.(Palacios y Rodrigo, 1998).

ZER DA AITA EDO AMA IZATEA?

- ❑ Aita edo ama izatea bizi proiektu hezitzaile batean sartzea.
- ❑ Inplikazio pertsonal eta emozional sakona eskatuko dion prozesu baten sartzea.
- ❑ Proiektu hezitzaile hau edukiaz betetzea.

ZEINTZUK DIRA GURASOEN BETEBEHARRAK?

- ▣ Seme-alaben biziraupena bermatzea.
- ▣ Giro egokia sustatzea.
- ▣ Umeei behar duten estimulazioa eskaintzea.
- ▣ Beste hezkuntza- testuinguruetara zabaltzea.*
_

GAUR EGUNGO FAMILIEN EZAUGARRIAK

- Ezkontza ez da beharrezkoa.
- Emakumearen sarrera lan-merkatuan.
- Aitak, haurren zaintza-lanetan arduratzen hasi dira.
- Seme-alaben kopurua murriztu egin da.
- Bikoteen banatzeak, dibortzioak eta familia berregituratuen kopurua handitu da.

GAUR EGUNGO FAMILIEN EZAUGARRIAK

- Familia tradizionalak aldatu dira:
 - Familia homoparentalak.
 - Familia monoparental.
- Umeak altxor bat dira; oso preziatuak:
 - Laguntza bidezko ugalketa
 - Adopzioa
- Familia trasnazionalak agertu dira.
- Familien kanpo-babesa murrizten doa: Familiaren estresa handitzen doa.

HAUR-HEZKUNTZAKO FAMILIEN EZAUGARRI BATZUK

- ▣ Umeak izatea krisi unea izaten da askotan bikotearentzat:
 - Harremana berrantolatu egin behar da.
 - Ume txiki baten zaintzak esfortzu handia eskatzen du.
 - Rolak berrantolatu egin behar dira.
 - Guraso papera gero eta zailagoa bihurtu da. Heziketa profesionalizatu egin dugu.
 - Amamen papera: familiaren presioa eta epaiketa.*

ETORKIN EDO ETORRI BERRIEN FAMILIAK

▣ Edozein emigrazio prozesutan gerta daitezkeen egoera batzuk :

- Familia banatuta egotea
- Erabakia, prestaketak eta laguntza
- Bakartze kulturala
- Identitatea
- Egoera sozio-ekonomikoa
- Aldaketak familiako botere egituran

ETORKIN EDO ETORRI BERRIEN FAMILIAK

- Eskolaren eta familiaren arteko gatazka kulturalak:
 - Seme-alabak hazteko erak desberdinak izan daitezkelako:
 - Bularra emateko aroa
 - Loa
 - Jolasa
 - Komunikazioa
 - Harremanak

HEZIKETA ESTILOAK

- Gurasoek edo hezitzaileek umeeekin harremanetan sartzeko duten modurik ohikoena. Pentsaeran, sentimenduetan eta ekintzetan ikusten da. Heziketa estiloa ez ohi da garbia izaten, gainartzailea baizik.

HEZIKETA ESTILOAK

	KONTROLA (+)	KONTROLA(-)
AFEKTUA (+)	ESTILO ASERTIBOA edo DEMOKRATIKOA	ESTILO PERMISIBOA edo BABESLEEGIA
AFEKTUA (-)	ESTILO AUTORITARIOA	ESTILO NEGLIGENTE*

ESTILO AUTORITARIOA

- ❑ Kontrolik handiena / afekturik txikiena. Gurasoak, seme-alaben beharrak finkatzen dituzten bakarrak ("nik esan dizudalako").
- ❑ Arauen jarraipen zakar eta zorrotza, eskaera berehala betearaztea ("Egin ezazu oraintxe bertan...").
- ❑ Zigor fisikoak, hitzezkoak edo gaitzespen-errietak maiz erabiltzea (orain ere..., beti bezalaxe) eta pribilejioak, sariak eta maitasuna ukatzea.
- ❑ Oro har, gurasoek baliabide emozional urriak izaten dituzte. Zailtasun handia dute seme-alabekiko haserre- edo gaitzespen-sentimenduak kontrolatzeko eta seme-alabei egozten dizkiete. Ondorioz, komunikazioa zaildu egiten da.
- ❑ Negoziatzeko trebetasunik eza, norabide bakarreko komunikazioa gurasoen eta seme-alaben artean, elkarrizketarik eza.
- ❑ Sentimenduen eta egoeren kontrolik eza.
- ❑ Normala denari ez dio kasurik egiten / Ezohikoa dena kontrolatzen du / Akatsik txikiena ere zigortzen du.

ESTILO NEGLIGENTE edo SAHIESKORRA

- ❑ Seme-alabak beren kabuz ikas dezaten uztea ("ikasiko du denborarekin"), akats arin edo larriekiko tolerantzia handia ("edonork egiten du huts", "egingo du irakasleak").
- ❑ Gatazkak saihestea eta aurre ez egitearren amore ematea. Ez dago jarraipenik.
- ❑ Negatiboagoa afekturik ez dagoenean.
- ❑ Seme-alabentzako arau, laguntza eta jarraipenik eza. Gurasoek ahalik eta denbora gutxiena ematen dute seme-alabekin.
- ❑ Heziketa-jarraibideak beste batzuen esku uztea (hezitzaileak, irakasleak, bizilagunak).
- ❑ Seme-alaben jarrera positibo eta negatiboekiko axolagabetasuna, permitibitate eta pasibotasuna. Zenbaitetan amorru-eztandak agertzen dira seme-alabek neurritik kanpo jokatzen dutenean.
- ❑ Ez da erreferentziazko eredurik eskaintzen.

ESTILO PERMISIBOA edo BABESLEEGIA

- ❑ Seme-alabei eskatzen duten guztia ematen dieten gurasoak izan daitezke.
- ❑ Saiheskor bihur daiteke gurasoek seme-alabak hurbil edukitzeko edozer gauza egiten uzten badiete.
- ❑ Seme-alabak kontrolatu nahi izaten dituzte afektu txantaje emozionalaren bidez ("Egin nahi duzuna, ni etxean geratuko naiz bakarrik, zure zai...").
- ❑ Bikotearen eta seme-alaben rolen arteko muga zehaztugabeak. Elkartasun handia izaten da amaren eta seme edo alabaren artean eta, oro har, aita autoritarioari gauzak ezkututzen zaizkio.
- ❑ Seme-alabei dena ematen diete, ezin dute seme-alaben frustrazioa jasan eta ondorioei aurrea hartzen diete.
- ❑ Gehiegizko babesa ematen dutenek seme-alaben arazoan erruduntzat hartzen dute beren burua. Oso erredun sentitzen dira arauak ezartzean eta, horrexegatik, ez dituzte ezartzen edo ez dituzte exijitzen. Gainera, seme-alabek betetzen ez badituzte, txantaje emozionala egiten diete edo errua kanpoan bilatzen dute.

ESTILO ASERTIBOA edo DEMOKRATIKOA

- Adinari egokitutako afektu eta kontrolik handiena.
- Seme-alaben beharrekiko sentikortasuna azaltzea eta izaki bereizi eta bakar gisa onartzea (baldintzarik gabeko onarpena).
- Arau argiak eta jarraipen irmoa aginduen, errefortzu positiboen eta, beharrezkoa izanez gero, zigorren bidez.
- Seme-alaben independentzia adinari egokitutako erantzukizun eta askatasunarekin estimulatzea.
- Gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazio irekia eta norabide bikoia.
- Seme-alabek bereganatu beharreko "kanpoko kontrola (arauak) barneko kontrola (barneratutako baloreak)" moduko prozesu bat sustatzen da.
- Estilo honetan ezagunak dira arauak betetzearen edo ez betetzearen ondorioak eta hori ez da gertatzen gurasoen gogo-aldartearen arabera, aldez aurretik hitz egindakoaren arabera baizik. Normala dena baloratzen da, ongi egindakoa indartzen da, ezohikoa dena nabarmentzen da, desbiderapen txikiak ahaztu egiten dira (ikaskuntzaren berezkotzat hartzen dira) eta handiak aldiz, zuzendu



HAUR ESKOLA

ZER DA HAUR ESKOLA?

- Haur hezkuntzaren helburu nagusia haurraren garapen osoa bultzatzea da eta, horretarako, gaitasun guztien garapenaz arduratuko da, hala fisikoez, nola afektuzkoez, intelektualez eta sozialez.
- Bi helburu nagusi ditu:
 - Helburu asistentziala
 - Helburu pedagogikoa

HELBURU ASISTENTZIALA (= haurtzaindegi)

■ **Gizarte eremuan, familiei laguntza eman nahi zaie, hiru urtetik beherako haurrak zaintzeko eta haietaz arduratzeko zerbitzuaren bidez. Horrela, familia bizitza eta lan bizitza bateratzen lagundu nahi zaie familiei.**

■ **Zergatik?**

- **Arrazoi laboralak: emakumea lan mundura**
- **Arrazoi sozialak: familia mota berriak (monoparentalak)**
- **Arrazoi ekonomikoak: etxebizitzaz gain, bizi kalitatea**

HELBURU PEDAGOGIKOA

- ▣ Hezkuntza eremuan, **PARTZUERGOAK**, familiekin elkarlanean, haurraren garapen osoa sustatu nahi du, haurraren heziketaren eta sozializazioaren bidez. Horretarako, oinarri izango dira adintxikien eskubideekiko errespetua, haurraren ongizate psikofisikoa eta haren izangaitasun guztien garapena (hala nola afektuzkoak, sentso-motoreak, ezagutzazkoak, harremanezkoak eta sozialak).*

EGOKITZAPEN ALDIRAKO

HELBURUAK:

■ GURASOENDAKO:

- Egoera desdramatizatu
- Irakaslea ezagutu
- Haurren gela eta eskolako beste lekuak ezagutu: jangela, patioa...
- Urteko programazioa eta helburuak ezagutu
- Egokitzapen aldian lagundu

■ IKASLEENDAKO:

- Eskola giroa ezagutu
- Gela eta eskolako beste lekuak ezagutu: jangela, patioa...
- Irakaslea eta bere ikaskideak ezagutu
- Bere gela identifikatu
- Gelako txokoak eta material ezberdinak ezagutu, manipulatu...
- Ohitura batzuk ikasi: agurtu, materiala jaso...

■ IRAKASLEENDAKO

- Giro motibatzailea sortu ikasleak pozik etorri daitezen
- Gurasoekin harremana
- Ikasleak ezagutu

EGOKITZAPENA HAURRAREN GARAPEN UNEAREN ARABERA

- **0-7 hilabete:** Gurasoen egokitzapena
- **8-12 hilabete:** zailtasunak. Atxikimenduaren unea eta ezezagunei beldurra
- **12-24 hilabete:** haurraren izaera eta nortasunaren araberakoa
- **24-36 hilabete:** aurrekoan moduan, baina hitza agertzen da

PAUSU POSIBLEAK

Hauek flexibleak dira

- 1.- Guraso bat (ama/ aita edo zaintzailea) 15 minutu gelan haurrarekin jolasten
- 2.- Gurasoa 15 minutu gelan haurrari kasu egin gabe
- 3.- Gurasoa kristalaren beste aldean 15 minutu, begira baina kontaktu gehiago ez
- 4.- Gurasoa pasiloan/kanpoan zain.
- 5.- Gurasoa kalera baina kontaktuarekin eta prest etortzeko guk deitzean

KONTUAN HARTZEKOAK:

- Egokitzapenak banan-banan
- Ahalik eta antz gehien
- Ez daude bi egokitzapen berdin
- Gurasoen konfidantza eta inplikazioa
- Zuek zarete profesionalak